


# Ryšánek jauna eta Schlegl jauna



**Jan Neruda**

ITZULPENA:  
Karlos Cid Abasolo

BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)

JAN NERUDA  
Ryšánek jauna eta Schlegl jauna

Txekieratiko euskaratzailea: KARLOS CID ABASOLO

Jatorrizko testuaren izenburua: *Pan Ryšánek a pan Schlegl*

Irrigarria izango litzateke nik zalantzan jartzea nire irakurleetako batek edo bestek ez duela ezagutzen Pragako Malá Strana auzoko Štajnic taberna. Auzoan sartu eta hantxe da jatetxea: Karlosen zubiko dorrearen atzean, lehendabiziko eraikina ezkerrera, Zubia eta Bainuetxea kaleen kantoian. Leiho handiak, beirazko ate handia. Kalerik jendetsuenean ausarki jarritako jatetxe bakarra, eta, gainera, espalaira zuzen egiten duena –gainerako jatetxe guztiak, edo alboko kaleetan daude, edo etxeko ataritik dute sarrera, edo, bederen, arkupea dute aurrean, Malá Stranako apaltasunari dagokion bezala. Horrexegatik ez dira joaten Štajnicera Malá Stranatar peto-petoak, txoko poetikoz betetako kale isil horietako seme direnak. Bai, ordea, goi mailako funtzionarioak, katedradunak, ofizialak –halabeharrak Malá Stranara hartaratuak, eta, agian, laster bertatik eramango dituenak–, pentsiodun bakan batzuk, zenbait etxejabe zahar aberats, zeinek aspaldi utzi baitzizkieten beste batzuei beren lanak, eta kito. Izaera burokratiko- aristokratikoko jendea.

Orain dela urte asko, artean batxilergoko ikasle xumea nintzela, Štajniceko bezeroek halako izaera berealdiko hura zuten, baina, hein batean, oraingoa ez bezalakoa. Labur esanda, Malá Stranako Olinpoa zen jatetxea, Malá Stranako jainkoen biltoki. Historiako egitate ukaezina da jainkoak beren herriarengandik sortzen direla zuzenean. Jehova jainko kopetiluna zen, gaizto eta mendekaria, anker eta odolzalea, nazio judu guztia bezala. Greziako jainkoak dotore eta argiak ziren, eder eta alaiak, den-denetan helenikoak. Jainko eslaviarrak... barkatu: izan ere, eslaviarrok ez dugu nahikoa indar plastikorik izan ez estatu handiak sortzeko, ezta jainko jakin batzuk osatzeko ere. Gure jainko zaharrek –Erben poeta txekiarra, Kostomarov historialari errusiarra eta horrelakoak bazter utzita–, gaur egun ere talde lainotsua izaten segitzen dute, leuntasun hutsa, ziurgabetasun hutsa. Baina, agian, artikulua berezi bat idatziko dut noizbait, berriaz burutsua, jainkoak eta gizakiak alderatuz. Hemen bakarrik esan nahi dut, bada, Štajnicen bildutako jainkoak, duda izpirik gabe, Malá Stranako egiazko jainkoak zirela. Malá Stranak –etxeak eta jendea hartuta– badu zerbait isil, duin, zaharretik, baita –esan dezagun– logaletutik ere, eta honetaz guztiaz, logale honetaz kutsaturik zeuden jaun haiek ere.

Funtzionarioak, militarrek, katedradunak, pentsiodunak ziren, bai, gaur bezalaxe, baina, garai hartan, funtzionarioak eta militarrek ez ziren batetik bestera herrestan eramanak izaten: aitak semea ikasketak bukatu arte Pragan gelditzea lortzen zuen, funtzionario bihurtzen laguntzen zion, eta entxufeak bilatzen zizkion bertan betiko gera zedin. Štajniceko bezeroak unetxo batez kanpoko espaloian elkartzen zirenean, agur egiten zien bertatik pasatzen zen edozein herritarrek, ezagutzen baitzituen.

Batxilergoko ikasleontzat, berriz, Štajniceko Olinpoa halako moldez zen Olinpo, non bertan izaten baitziren gure katedradun zaharrak ere. Zaharrak? Zergatik diot “zaharrak”? Ondo ezagutzen nituen gure Malá Strana maitagarriko jainkook, eta beti iruditzen zitzaidan haietako bat ere ez zela sekula gazte izan, edo, hobeto esanda, umetan ere halako itxura izan zutela, hori bai, txikixeagoak izanik.

Gaur balitz bezala ikusten ditut denak neure aitzinean! Lehenengo eta behin, apelazio-kontseilari jauna. Luze, ihar, eta neurrigabeki errespetagarria. Artean jardunean zegoen, baina inoiz ez nuen ondo ulertu zein zuen eginbeharra. Goizeko hamarrak inguruan eskolatik ateratzen ginenean, kontseilari jauna Karmeldarren kaleko bere etxetik irten, eta serio-serio joango zen Ostruha kalera, Txardaren ardandegira. Ostegunetan, eguerditik aurrera klaserik eduki ez eta Ama Birjinaren murrailetan barrena bihurrikeriatan aritzen ginelarik, hura hango parkean ibiliko zen paseoan, eta arratsaldeko bostak aldera Štajnicen sartu. Hori ikusita, ikasle saiatua izateko erabaki trinkoa hartu nuen halako apelazio-kontseilari izatera iristearren, baina gero nolabait ahaztu nuen kontua.

Hurrena, konde jaun begibakarra. Egia da Malá Stranan sekula ez zela konde-gabeziarik izan, baina begibakar hura zen, beharbada, Malá Stranako taberna hartara joaten zen konde bakarra, garai hartan, behintzat. Handia, hezurtsua, ile motz urdinduna, ezkerreko begian lotailu beltz bat zuena. Bi orduz-edo gelditzen zen Štajnic aurreko espaloian. Egun batean, handik igaro behar nuela-eta, itzulinguru bat egin nuen. Izan ere, naturak noblei profil jakin bat eman die, “aristokratiko” deritzona eta hegazti harraparien antz-antzeko egiten dituen. Konde jaunak, egiari zor, zapelatz jakin baten itxura zuen. Zapelatz hark, bere ohiturari ankerki atxikirik, egunero, eguerdiko hamabiak aldera, San Nikolasen elizaren kupularen gainean uso harrapatuarekin pausatu eta, harrapakina urratzen zuen, halako moldez, non uso-hegalak

plazaraino hegaldatzen baitziren. Horrenbestez, kondearen ingurutik igarotzean, beldur zehaztugabea nuen ez ote zitzaidan buruan mokoka hasiko.

Jarraian, Armadako Buruzagitzako sendagile jaun lodia zen, artean sasoi onekoa inondik ere, baina jadanik erretiroa hartua. Hartaz kontatzen zenez, Pragako erietxeak ikuskatzen ari zen goi mailako pertsona ospetsu batek iruzkin bat egin zion, eta berak honela erantzun omen zion goi mailako pertsona ospetsu hari:

– Ez duzu ezer ulertzen.

Horregatik hartu zuen erretiroa, eta, aldi berean, gure maitasuna, zeren mutilok iraultzaile prestuzat hartu baikenuen jaun lodi hura. Xaloa eta hitz-jarioa ere bazen. Bere gustuko mutiko bat topatzen zuenean –neskatxa ere izan zitekeen–, hura geldiarazi, aurpegia laztandu, eta honela esaten zion: “eman goraintziak aitari”, nahiz eta agian ez ezagutu.

Eta hurrengoa... hurrengorik ez, ordea! Agure haiek guztiak bat-batean areago zahartu, eta gero hil egin ziren. (Ez ditzagun itzalak hilobietatik atera). Plazer dut gogoratzean ze une bikainak pasatu nituen haien artean, ze independentzia, gizontasuna, handitasuna sentitu nuen, unibertsitatean hasi eta estreinakoz –eta katedradunenganako beldurrik gabe– Štajnicera sartu nintzela, izaki goren haien artera. Ez zidaten jaramon handirik egin, egia da. Hobeto esanda, ia bat ere ez. Izan ere, behin, zenbait asteren buruan, zera gertatu zen, Armadako sendagile jaunak, nire mahaitxo inguratuz kanpora bidean zihoalarik, honela esan zidala: “Bai, bai, gazte, diotena diotela, gaur egungo garagardoa ezin txarragoa da!”, eta, aldi berean, mesprezuz begiratu zien mahaikide izan berri zituenei. Bruto halakoa! Ausartuko nintzateke esaten irain egingo ziokeela Zesarri berari, “ez duzu garagardoaz ezer ulertzen” aurpegiratuz.

Nik, hala ere, jaramon egiten nien zaharroi. Askorik ez nien entzuten, baina asko behatu bai, ordea. Izaki haien kopia xumetzat daukat neure burua, eta haiengandik daukat nire baitan gorenetik dagoen guztia. Alabaina, guztietatik bi gizon gertatuko zaizkit ahaztezinak, bihotzaren barru-barruan tinkatu zaizkidanak: Ryšánek jauna eta Schlegl jauna.

Bi hauek ezin zezaketen elkar ikusi ere egin. Baina barkamena eskatu behar dut, nahiago dut-eta haietaz bestela hasi.

Zubia kaletik Štajnicera sartuta, billar-mahaiak dauden tokian, hau da, eskuinaldean, hiru leiho ageri dira, Bainuetxea kalera ematen dutenak. Leiho bakoitzaren hutsartean mahai txiki bat dago, eta, ondoan, ferra itxurako jarleku bat. Hiru pertsonak dute beti han tokia, batak leihoari bizkar emanda, beste biek elkarren aurrean, jarlekuaren muturretan. Bi hauek ere leihoari bizkar emanda esertzekotan, billar-mahairantz jiraturik esertzen dira, jokoari so denbora-pasan.

Sarreratik eskuinera dagoen hirugarren leihoan, eskuarki, Ryšánek eta Schlegl herritar errespetagarriak esertzen ziren, egunean-egunean, arratseko seietatik zortzietara. Toki hura erreserbatuak zeukaten beti. Beste edonor jaun horien ohiko jazarlekuetan esertzen ausartzea ezinezkotzat eta burutik baztertu beharrekotzat joko lukete Malá Stranatar zintzo eta moral onekoek. Izan ere, ez zegoen hori buruan ematerik ere. Leiho ondoko tokia hutsik zegoen beti. Sarreratik gertuago zegoen ferra itxurako jazarlekuaren muturrean Schlegl jauna esertzen zen; beste muturrean, kana bat haratago, Ryšánek jauna. Beti ere leihoari bizkar emanda esertzen ziren biak, eta, beraz, era berean mahaitxoari eta elkarri erdizka bizkar emanda, billar-mahaiaren aldera begira. Zurrut egiteko edo pipak betetzeko baino ez ziren mahaitxorantz jiratzen. Hamaika urte emanak zituzten horrela eserita, egunez egun. Eta hamaika urte haietan ez zioten elkarri hitz bat bera ere egin, ezta elkarri erreparatu ere.

Malá Stranan barrena ezagun zen elkarri zioten herra gupidagabea. Elkarren arteko etsaigoa zaharra eta ezin adiskidetuzkoa zen. Ezagun zen, halaber, horren zioa, gaizki osoaren sorburua: emakume bat. Biok maite izan zuten emakume bera. Hark, hasieran, Ryšánek jauna aukeratu zuen, zeina aspalditik merkatari autonomo baitzebilen. Gero, supitoki, ustekabeen bira eginez, Schlegel jaunaren besoetan erori zen, hura Ryšánek jauna baino ia hamar urte gazteagoa zelako-edo. Kontua da Schlegelen emazte bihurtu zela.

Ez dakit Schlegel andrearen aparteko edertasunak justifika ote zitzakeen Ryšánek jaunaren min etengabea eta ezkongabetasun betierekoa. Aspaldi egin zuen hemengo aldia andreak. Lehenengo sabelondoan hil zen, alabatxo bat utzirik, amaren berdin berdina, nonbait. Hizpide dudan garaian, Schlegel andereñoak hogeita bi urte beteak zituen. Ezagutzen nuen, askotan etortzen baitzitzaion bisitan gurearen gaineko pisura Poldýn kapitainaren emazteari, zeinak, kalean hogeitaurrats egin orduko, estropezu egiten baitzuen. Schlegel andereñoa arrosa baino

ederragoa omen zen. Baliteke, bai, baina zentzu arkitektonikoan: dena bere tokian, bere neurri zuzenean. Baina arkitektoez beste guztientzat, etsitzeko modukoa. Jauregi bateko fatxada bezain tinko zeukan aurpegia. Begirada, espresiorik gabea, leiho garbitu berria bezain distiratsua. Ahoa, arabesko ñimiño bat bezain ederra, ate bat bezain geldiro irekitzen zitzaion, eta gero, edo alderik alde irekita geratzen zitzaion, edo irekitzean bezain geldiro ixten zitzaion. Horrez gain, zuritu berria bezala zuen azala. Baliteke gaur egun, bizi baldin bada, jada hain polita ez izatea, baina bai ederragoa: antzeko eraikinak zenbat eta hondatuagoak, are eta eder eta distiratsuagoak dira.

Damu dut irakurlari kontatu ezin izana nola egokitu ziren Ryšánek jauna eta Schlegel jauna hirugarren leihoaren ondoko mahaitxoan. Horren erruduna kasualitate madarikatua izan zen, egunean-egunean bi agureok samindu nahi izaten zituena. Kasualitate ezezagun hark han eserarazi zituenean, lehenengo aldian gizon-harrotasunez atxiki bide zituen beren lekuetan. Bigarren aldian, setaren setaz eseri ziren bertan, antza. Hurrengoan, bakoitzaren irmotasunaren erakusgarri eta amen-omenen beldurrez. Bada, Štajniceko guztiak antzina ohartu ziren gizon-ohore kontua zela hura bientzat, eta ez batak ez besteak ezin zezaketela amore eman.

Seietan iristen ziren, bata minutu bat lehenago gaur, bestea bihar. Agur egiten zuten alde guztietara adeitsu, elkarri izan ezik. Zerbitzariak kapelua eta makila hartzen zizkien udan, eta neguan larruzko txanoa eta longaina, eta haien eserlekuaren atzeko gakoan esekitzen. Jarraian, bietako bakoitzak baiezko keinua egiten zuen gorputzaren goiko partearekin, usoen antzera –zaharrek aurpegiko keinu hori egiten dute eseri nahi izaten dutenetan–, gero esku bat bermatzen zuten mahaitxoaren ertzean –Ryšánek jaunak ezkerrean, Schlegl jaunak eskuina–, eta poliki esertzen ziren, leihoari bizkar emanda, billar-mahaira so. Tabernari lodia iristen zenean, beti irribarrez eta berritsu, gizalegezko tabako-hautsa eskaintzera, bakoitzaren kutxatxoan kox-kox egin behar izaten zuen eta bakoitzari iruzkindu eguraldi ederra zegoela kanpoan. Osterantzean, ez batak ez besteak ez zuten tabako-hautsik hartuko, entzungor eginez. Inork ez zuen inoiz ere lortu biekin aldi berean hitz egiterik. Inoiz ez zioten elkarri erreparatu ere egin. Bakoitzarentzat ez zegoen beste inor mahaietan.

Zerbitzariak baso bana garagardo jartzen zien. Handik pixka batera mahaitxorantz jirutzen



ziren –baina inoiz ez aldi berean, elkarri zeharka begiratzuz baina axolagabetasun plantak eginez–, eta bularreko poltsikotik ateratzen zuten zilarrez landutako pipa handi bana, eta tabakoz betetako poltsatxo bat jakaren hegaletik. Pipa bete, piztu, eta berriz ere jirutzen ziren leiho aldera. Hala ematen zituzten bi ordu jesarrita: hiruna basokada garagardo edan, gero altxatu –bata minutu bat lehenago gaur, bestea bihar–, pipa patrikaratu, poltsatxoa gorde, eta guztiei egiten zieten agur, albokoari izan ezik.

Nahita esertzen nintzen tximiniaren ondoko mahaira. Honela, zuzen-zuzen begiratzen nien aurpegira Ryšánek jaunari eta Schlegel jaunari, eroso eta isil-misilka.

Ryšánek jauna mihise-saltzailea izandakoa zen; Schlegel jauna, aldiz, burdindegi baten jabea. Orain, biek, aberasturik, negozioa utzia zuten, baina beren aurpegiak, nolabait esatearren, etengabe ekartzen zituzten gogora garai bateko beren lanbideak. Ryšánek jaunaren aurpegiak beti gogorarazten zidan marra zuri-gorridun mihisea; Schlegel jauna almeriz zahar jubilatua iruditzen zitzaidan erabat.

Ryšánek jauna luzeagoa zen, iharragoa, eta, esan bezala, zaharragoa. Jadanik ez zen eskailu bat bezain osasuntsua. Ahul zegoen maiz, eta ahoko baraila nahi gabe bereizi eta jaisten zitzaion. Adar beltzezko armazoiko betaurrekoak erabiltzen zituen begi grisen aurrean. Ile bakan batzuek estaltzen zioten burua, eta, betile ez guztiz urdinduen arabera, uste izatekoa zen Ryšánek jauna ilehoria izana zela. Hondoratuak eta zurbilak zituen masailak, hain zurbilak, ezen sudur luzea karmin kolorea hartzeraino gorritzen baitzitzaion. Horren kariaz, antza, tanta bat ageri ohi zitzaion sudur puntan, malko bat, barne-barnetik isurtzen zitzaiona. Haien biografo arretatsua naizen aldetik, ohartarazi behar dut Ryšánek jauna beranduegi ahalegintzen zela malko hura lehortzen, zeren ordurako eroria baitzitzaion altzo errukiorrera.

Schlegel jauna mozkote samarra zen, lepogabea, alegia. Bonba bat bezalakoa zuen burua; ilea, oso grisa, beltza; aurpegia, bizar egindako aldean, urdin-beltza, eta alde bizargabea, ordea, arrosa kolorekoa. Funtsean, haragi puska distiratsu bat, eta gero puska ilun bat, Rembrandten erretratu bat bezain iluna.

Miresmen handia nien bi heroi horiei, bai, mira egiten nien. Han eserita zeuden moduan, egunean-egunean bataila handi, anker, errukigabe bati ekiten zioten. Beren armekin borrokatzen ziren: pozoiz blaitutako isiltasunaz, erdeinurik astunenez. Eta bataila hura

erabakitzeke gelditzen zen beti. Nork jarriko ote zuen azkenean hanka lehiakide garaituaren lepoan? Schlegel jauna indartsuagoa zen fisikoki, erabat motza eta laburra. Hitz egiten zuenean, dorretik jausi eta plaust! egin izan balu bezala zen. Ryšánek jauna samur eta luzeago mintzatzen zen: ahula zen, baina heroitasun berberaz isiltzen zen, eta gorrotatzen zuen.

Zerbait gertatu zen.

Asteazkena zen, Jubilate-ren, hots, Bazko osteko hirugarren igandearen aurrekoa, hain zuzen. Schlegel jauna tabernara iritsi eta jesarri egin zen. Eseri, pipa bete, piztu, eta kezko hodeitxo bat jaurti zuen, sutegitik aterea zirudiena. Orduan, tabernaria sartu eta zuzen-zuzen joan zen harengana. Tabako-hautsaren kutxatxoan kox-kox egin eta apur bat eskaini zion. Gero, berriz ere kutxatxoa itxi eta, aldi berean ate aldera so, ohartarazi zuen:

– Ba, gaur ez dugu Ryšánek jauna ikusiko.

Schlegel jaunak ez zuen erantzun, harrizko axolagabekeria ezereziari begira.

– Hala esan du Armadako sendagile jaunak –jarraitu zuen tabernariak, ateari bizkar emanda. Jirutzen zenarekin batera, bere begiradak Schlegel jaunaren aurpegia zeharkatu zuen–. Ohi bezala ohetik jaiki, eta bat-batean sukarrak jota, berehala oheratu behar izan du berriz ere, eta azkar joan dira sendagilearen bila, ziztu bizian. Diagnostikoa: alborengoa. Gaur jada hiru aldiz joan zaio etxera Armadako sendagilea. Ryšánek jauna zaharra da, bai, baina esku onetan dago. Hala espero dezagun!

Schlegel jaunak, ezpainak itxita, purrust egin zuen. Ez zuen txintik atera, ez zuen begirada aldatu. Tabernaria hurrengo mahaira joan zen.

Une hartan, Schlegel jaunaren aurpegira adi-adi begira nengoen. Luzaro gelditu zitzaion aurpegia zirkinik ere egin gabe: ezpainak ireki baino ez zitzaizkion egiten eta kea jaurti, eta noizbait ezpain-ertz batetik bestera irristatzen zitzaion piparen ahokoa. Gero, ezagun bat hurreratu zitzaion. Solasean ari zirela, Schlegel jaunak ozenki egin zuen barre zenbait aldiz. Higuingarria egin zitzaidan haren barre hura.

Dudarik gabe, Schlegel jauna inoiz ez bezala jokatzeko ari zen egun hartan. Aurrekoetan, bere lekuari iltzaturik, soldadu bat bere garitari legez. Oraingoan, ordea, ipurtarin, zalapartatsu. Billarrean ere aritu zen, Köhler jaun dendariarekin. Doublé-raino zortea izan zuen partida

guztietan, eta aitor dut ia-ia opa izan niola azken doublé-an huts egin zezala eta Köhler jauna nagusitu zekiola.

Gero, berriro eseri, erre, eta edan egin zuen. Norbait hurbiltzen zitzaionean, Schlegel jaunak ozenago hitz egiten zuen, inoiz ez bezalako esaldi luzeak ebakiz. Ez nuen bistatik galtzen haren higadura txikiena ere. Argi ikusten nuen barrenetik pozik zegoela, ez zuela sentimendu arruntena ere etsai gaixoaren alde. Higuingarri iritzi nion.

Zenbait aldiz bere begirada Armadako sendagile jauna eserita zegoen tokiaren ondoko arasan pausatu zen. Ziurrenik, eskua estutuko zion gaixoarekin lan gehiegi egin ez zezan. Gizon gaiztoa, inon gaiztorik bada!

Zortziak aldera, sendagile jaunak alde egin zuen. Hirugarren mahaitxoaren parean gelditu eta “gau on” esan zuen, “gaur beste behin joan behar dut Ryšánek jaunarenera, artaren beharra du eta”.

– Gau on –Schlegel jaunak hotz arrapostu.

Egun hartan, lau basokada edan zituen Schlegel jaunak, eta zortzi eta erdiak arte gelditu zen bertan.

Igaro ziren egunak, igaro ziren asteak. Apiril hotz eta zakarraren ostean, maiatz beroa heldu zen. Urte hartan udaberri ezin ederragoa izan genuen. Maiatza eder denean, Malá Strana paradisua da. Petřín muinoa lore xuriz bilduta dago, han-hemenka esnea borborka isuriko balitzaio bezala, eta Malá Strana osoa lili-usainez basitua dago.

Ryšánek jauna jada arriskutik kanpo zegoen. Udaberriak, baltsamoa izango balitz legez, on egin zion. Parkean paseatzen topatzen nuen. Geldiro ibiltzen zen, makilan bermaturik. Lehen iharra zen, eta orain, berriz, are iharragoa. Artean zintzilik zeukan beheko baraila. Kokotsa zapi batez lotu, begi lausoak itxi eta hilkutxan sar zezatela: ez zuen besterik behar. Baina, bat-batean, suspertu egin zen.

Ez zen Štajnicera joaten. Han, hirugarren mahaiaren jaun eta jabe zebilen Schlegel jauna, beti bakarrik, eta bere gogara mugitzen eta esertzen zen.

Azkenik, ekainaren bukaeran, Petri eta Paulo Deunen egunean hain zuzen, hara non bat-

batean ikusten ditudan han, berriz ere elkarren ondoan, Ryšánek jauna eta Schlegel jauna. Ostera ere, Schlegel jauna bere tokian jesarrita zegoen, iltzatuta bezala, eta biak jiraturik zeuden, leihoari bizkar emanda.

Auzokoak eta ezagunak joan zitzaizkion Ryšánek jaunari eskua luzatzera. Guztiek ongi-  
etorri bihotzekoa eman zioten, eta agurea, atseginarene atseginez asaldaturik, dardarka, irribarrez, ahapeka mintzatu zen, samurki. Schlegel jauna, billar-mahaira so, erretzen ari zen.

Une batez bakarrik gelditzen zen bakoitzean, Ryšánek jaunak so txiki bat egiten zuen sendagilea eserita zegoen tokirantz. Esker oneko arima.

Berriz ere harantz begiratu, eta orduan Schlegel jaunak, tupustean, amiñi bat mugitu zuen burua alde batera. Geldiro altxatu zuen begirada, zorutik gora Ryšánek jaunaren gaindi, haren belaun zorrotzetan zehar eskuraino, zeina mahaitxoaren txoko batean baitzetzan, larruz estalitako hezurdura baten gisa. Unetxo batez esku horretan atsedean hartu, eta berriz ere gora egin zuen, baraila dilindari eta aurpegi zurbilduraino. Baina, orduan, begirada apartatu zuen, eta ostera ere tentetu zitzaion burua.

– Hau poza, hau! –bota zuen tabernariak, sukalde edo sototik heldu berritan. Ryšánek jauna ikusi bezain laster, harenganantz azkartu zuen pausoa–. Gure artean zaitugu berriz ere, osasuntsu, Jainkoari esker!

– Aintza Jaunari! –irribarre egin zuen Ryšánek jaunak–. Oraingo honetan onik atera naiz. Dagoeneko sasoian nago.

– Baina Ryšánek jaunak ez du erretzen, ala? Tabakorako gogorik ez, ala?

– Gaur bai, aspaldiko partez. Erre egingo dut.

– Tira, tira, seinale ona da hori –tabernariak kutxatxoa itxi, kox-kox egin, Schlegel jaunari eskaini ohartzoren bat egiteaz batera, eta alde egin zuen.

Ryšánek jaunak, pipa atera eta, poltsikoa arakatu zuen tabako-poltsatxoaren bila. Buruaz ezezko keinua egin, bigarrenez arakatu, hirugarrenez, eta, azkenik, zerbitzari xumeari hots egin zion:

– Hoa nire etxera. Badakik non bizi naizen? Hortxe, kale kantoian, bai. Esaiek nire tabako-

poltsatxoa emateko, mahaian egon behar dik eta.

Mutila, jauzi egin eta, eta korrika atera zen.

Orduan, Schlegel jauna mugitu egin zen. Eskuineko eskua geldiro-geldiro poltsatxo irekita luzatu, eta hurreratu egin zuen, kasik Ryšánek jaunaren aurrera.

– Plazer baduzu... Nik tabako-nahaste on-ona dut –esan zuen bere modu laburrean, eta ez tul arina egin zuen.

Ryšánek jaunak ez zuen erantzun. Ryšánek jaunak ez zuen begiratu. Burua beste aldera jiraturik zeukan, aurreko hamaika urteetan bezain axolagabe.

Zenbait aldiz eskua dardaratu zitzaion, ahoa itxita.

Schlegel jaunari eskuineko eskua poltsatxoari itsatsita gelditu zitzaion, begiak zoruari finkaturik. Orain atxikia ematen zion pipari, orain triki-traka egiten zion eztarriak.

Une hartan itzuli zen zerbitzaria.

– Eskerrik asko. Dagoeneko neure poltsatxoa daukat, begira –eskerrak eman zizkion orduan Ryšánek jaunak Schlegel jaunari, hari begiratu gabe baina–. Neuk ere erretzen dut tabako hori –erantsi zuen handik gutxira, zerbait gehixeago gaineratu beharra sentituko balu bezala.

Pipa bete, piztu, eta atxikia eman zion.

– Atsegin zaizu? –purrust egin zuen Schlegel jaunak, ahots ohi baino ehun aldiz lakarragoz.

– Bai, Jainkoari esker.

– Jainkoari esker, bai –errepikatu zuen Schlegel jaunak. Tximistak zero ilunean bezala, ahoko giharrak uzurtu egin zitzaizkion, eta azkar gaineratu zuen:

– Hemengo jendea beldur ginen ez ote zitzaizun zerbait gertatuko.

Orduantxe bai, orduantxe jiratu zuen burua Ryšánek jaunak, poliki-poliki, Schlegel jaunarengantz. Bi gizonek topo egin zuten begiz begi.

Eta, aurrerantzean, elkarrekin hitz egin zuten Ryšánek jaunak eta Schlegel jaunak hirugarren mahaitxoan.